

**Katalogoa erakundearen web-orritik kontsulta daiteke**

## **Patagoniara eta Amazoniara adituekin espedizioak, 60 urtetik gorakoentzako eskaintzaren berritasunak**

- **Guztira 7.800 leku eskaintzen dira, iaz baino 1.400 gehiago**
- **Interesatuak Kutxabanken webgunean edo Azulmarino Bidaiak-en edozein bulegotan eman ahal izango dute izena**

**2024ko martxoaren 7a.** Kutxabankeko 60 urtetik gorako (% 100 Nagusi) bezeroek, bankuarentzako **talde estrategikoa**, jada eskuragarri dituzte Azul Marinok pertsona horientzat antolatzen dituen bidaiak eta txangoak. Programan **80 helmuga eta 7.800 leku** daude aukeran, aurreko urtean baino 1.400 gehiago, distantzia luze eta ertaineko bidaia eta txangoetarako.

Aurtengo nobedadea *Viajar* aldizkariarekin elkarlanean diseinatutako bi espedizioak dira. Aldizkariaren zuzendariak, Josep María Palau kazetariak, gidatuko ditu bidaiariak **Txileko Patagonia** espedizioan, Andeatatik mendebaldera dauden aintzira, fiordo eta glaziarretan barrena.

Bigarren espedizioa, **Amazonia eta Galapagoak**, Montse Collel aditu biologo eta etologoarekin egingo da.

### **Klasiko handiak eta helmuga berriak**

Aurreko urteetan bezala, aurtengo katalogoan ere badaude Fiordoetara, Turkiara edo Kroaziara distantzia luzeko bidaiak, eta iaz gehien eskatutako bi helmugak errepikatzen dira: Argentina eta Japonia.

Aurreko urteetan bezala, **programazio lasaiagoa** ere eskaintzen da kostalde, uharte eta bainuetxeetako helmugekin, baita ihesaldi, bidaia aktibo edo egun bakarreko txangoak ere.

**Distantzia luzean**, berritasun gisa, Islandia, Kolonbia, Peru, Hegoafrika eta Sri Lankara eskaintzen dira bidaiak.

Bidaia-programa hau **oso estimatua** da kalitatearen eta zerbitzuaren arteko erlazio ona duelako, eta oso balioetsitako zerbitzu osagarriak eskaintzen dituelako, hala nola, bere gidari laguntzaileak, ibilbide eskusiboak, helmugako laguntza, egiaztatutako zerbitzuak, edo aurten aseguruaren estaldurak handiagotzea, laguntza handiago eta ezeztatze aukera gehiagorekin.

Bidaia-programaz baldintza berezietan gozatzeko baldintzak hauek dira: pentsioa Kutxabanken helbideratuta izatea, Erakundearen txartel bat gutxienez izatea, eta 60 urtetik gorakoa izatea.

Izena emateko epea jada zabalik dago eta Internet bidez formalizatu ahal izango da, Kutxabanken webgunean nagusi edo adinekoentzat dagoen web-orritik. Azul Marino Bidaiak, bestalde, bere web-atarian, bere bulegoetan eta 946 620 222 telefono-zenbakian ere eskaintzen du izena emateko aukera.

Ibilbide guztien antolaketa teknikoa Azul Marino Bidaiak egin du, Iberostar taldeko bidaia-dibisioa den World2Meet-en (W2M) parte denak. Euskal tour operadore ospetsu hau liderra da bere negozio-segmentuan, 40 urteko esperientzia du distantzia luzeko bidaietan, eta Espainiako estatu osoko turismo-operadore nagusietako bat da.

## **Kutxabank**

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko lantaldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, finantza-sistemako bankurik kaudimendunena Espainian eta arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea Europan.